

...eta

Kitto!

850 zkia.
2013-V-31



Tabakoa EZ dut atsegin



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

- Miopia (Femtosegunduko laserrarekin)
- Kataratak (Lente multifokalarekin)
- Presbiziaren kirurgia

Plaza Barria 2. 2º. - 20600 EIBAR Gipuzkoa
Tel.: 943 201 844 - Fax: 943 820 314 • admon@clinicarecalde.com / www.clinicarecalde.com





RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

- **Iribarreetan adituak**
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Aseguruekin
IMO, ADESLAS, SANTA LUCIA,
FRATERNIDAD...
egiten dugu lan
KONTSULTATU!

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com



EPOCA-GORO

ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA

ASTEAN ESANAK

“Orain dela bost urte mileuristak mespretxuz tratatzen ziren; gaur langabe daudenen %80k hil egingo luke hilero mila euro kobratzeagatik. Onuragarriagoa da gure arteko akordioa Europatik datorkigun laguntza baino”

(KOLDO SARATXAGA, ENPRESARIA)

“Newyorktarren %21,3 pobre bizi ziren 1011n eta, jakietarako bonuak murriztuz gero, pobrezia tasa %3,6 handiagoa litzateke. AEBetan, atzeraldi ekonomikoa amaituta, janari bonuak erabili behar izaten dituzte 47 bat milioi lagunek”

(IRUNE LASA, KAZETARIA)

“Urtean 1,8 milioi metro kubikoko hazkundera du radiata pinuak EAEn, baina azken hamarkadan urtean hazitakoaren erdia baino ez da usiatu eta, beraz, 10 milioi metro kubikoko stock-a pilatu da dagoeneko”

(JOSU AZPIARTE, EUSKADIKO BASOGINTZA)

“Erabaki arriskutsua hartu nuen: Euskal Herrian dantzari izatea. Gauza asko falta dira hemen dantzaren alorrean eta hezkuntzan sekulako zuloa dago. Baina denok kanpora alde egin ezker, gureak egin du”

(MATXALEN BILBAO, DANTZARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

JATXI.- Eratxi, errapeari sakatuz esnea atera. “Goixian goix behixak jatxi esnia plazara eruateko”. Adore barik, triste. “Harrezkero, oso jatxixa dabil ha zan harrua”.

JAUNGOIKUAREN IZENIAN.- Esandakoari indarra emateko interjekzioa. “Jaungoikuan izenian ez zaitte agertu ha dagon lekura!”.

JAUNKI.- Goikoekin lausengutan, koipekerietan, zurikerietan ibiltzen dena. “Gizon jaunkixa, leguna goikuegaz eta gogorra azpikuentzat”.

eskutitzak

AITAREN KASUA ARGITU NAHIAN

Orain dela bi egun nire aita Martuteneko kartzelan sartu zen, borondatez, familiak babestuta. 6 urteko kartzela-zigorra jaso du, eta guk inoiz ere ez dugu esan erruduna ez denik. Zigor hori ekarri duen gertaera hasieratik tipifikatu dute indarkeria matxista moduan komunikabideek eta hainbat elkartek, baina ez da horrelakorik izan, kasu honetan familia-ahaidetasuna dagoelako tartean. Emakume moduan, eta gai horrekin sentsibilizatuta nagoela esan behar dut, argi daukat emakumea dela gehienetan ahulena eta babestu beharrekoa, baina salbuespenak ere badira, tartean gure aitaren kasua. Nire aita bidegabe aurretik juzgatzeak kalte konponezina eragin dio berez lur jota zegoen familiarri. Ez dugu inolaz ere gertatutakoa justifikatzerik

nahi, ezta nire aitak ere. Errua onartu du, barkamena eskatu dio arrebari eta ordaindu beharreko kopurua ere ordaindu du, kuantifikatutakoaren hirukoitza. Egin dezakegun gauza bakarra babesa jasotzea da eta horretarako inprimakiak banatu ditugu Amañako auzoan, sinadurak jasotzeko. Zorionez jende ugari du konfidantza gudan eta laguntasuna eskaintzen ari dira. Babes hori **change.org** web orrian ere eskaini daiteke, Probintzia Auzitegiari Valentin Richart-i laguntzeko eskaera eginez. Aitak, familiaz gain, lagun ugari laga ditu kanpoan, bere alde borrokan. Lagun gaitzazue, mesedez, itxarornaldia ahalik eta laburrena izan dadin.

ELENA RICHART, FAMILIA OSOA, BIZILAGUNAK ETA LAGUNAK



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONORAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekaroren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhua Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Arantza Lasa

Toda Aznarez Sanchez de Larraun eta Fortunez (2)

Simancaseko garaipenaren ostian, Toda erregiña Iruñako erraiñua zabaltziaz arduratu zan. Betiko lez, kristau erregetza ingurukuak eta jauntxuen artian ezkontza loturak sinatuz, diplomaziaren artian habildade haundixa erakutsiz. Holan, Leoneko erraiñua bere billoba Sancho Lodixarendako lortu zeban jartzia, baiña 958 urtian, Leoneko jauntxuek Sancho baztertuko dabe, bere okela jarixuarekin ezin zalako zaldixan ibilli eta ezta borrokau be. Todak, Cordoban eskatu eban laguntza, Hasday ibn Seprut mediku, diplomatiko eta filosofo judutar famatuak bere Sancho sendatzeko. Abderraman III.ak bialdutako medikuak berak egiñ eban tratua Iruñan, erregiña eta billoba euskaldun kortetik Cordobaraiño eruuteko. Erregiñak bazittuan ordurako ixa-ixa laurogei urte, eta peninsulia kondiziño bapez erosuetan gurutzatza prestau zan. Urte bat geruago, eta Sancho daganeko osatuta, tropa musulmanekin bueltau zan Leoneko erresuman agintzera. Hori bai, mesedia debalde ez zan izango, Duero inguruko hamar gotorleku emon bihar izan zetsazen Kalifatuari. Erraiñu Zaharreko antxiñatiaz diharduen kronikarixen idazkixetan, Toda erregiña, X. gizaldiko pertsonaia garrantzitsuenetarikua da, nahiz eta erregiñaren haundinaikerixia be azpimarratuta laga. Dana dala, Toda andriak nafar erresuman oiñarrixak ezarri zittuan bere birbilloba Sancho Haundixarentzat. Eta jakiña da errege honek 1005 urtetik aurrera, eta 1035 urteraiño, beste erraiñu kristauen gaiñetik, Nafarruako nagusitasuna lekukotuko zebala. Toda Aznarezen gaiñian, historixako idatzixetatik aparte, Angeles Irisarri idazliak, bere datu biografikuak hartuta, “*El viaje de la reina*” liburua nobelatu dau. Antzerkixan be, erregiña horren bizitza antzeztua izan da, Iruñako Errotxapeako auzuan kale batek bere izena eruaten dau eta, bestalde, Nafarruako lurralde izandako Cogollako Suso monastegixan, azkenetariko erregiña da.

Ekintzaillieri errekonozimenduak Debegesan

Debabarrena Ekinean! eta Bai Industriari! errekonozimenduak banatu zittuen martitzenian Debegesan, Ekintzailliren Eguna-ren harira: Debabarrena Ekinean! sarixa (iraunkortasuna atal-ian) Miguel Loitxate eibartarrarendako izan zan, biajiak eta gastroesperientzixak kontatzeko blogarengaittik (www.lonifasiko.com); Plus Ekimena atal-ian, Satxa Zeberio debarra saritu eban, Puertas Ireki enpresarengaittik; eta talde-lanari errekonozimendua Zona 10 alkartiak jaso eban. Bestalde, Bai industriari! errekonozimendua Elgoibarko Swisslan enpresiak jaso eban.

Sarixak banatu aurretik, baiña, beste jarduera batzuk egin zittuen Debegesaren egoitzan. Ekitaldixa Enpresen Azokarekin hasi eban: Ane Campos Elkoro (gorputzaren azterketia eta diagnostikua), Kerala (estetika eta ongizate zentrua), Ekingune (Debabarreneko ekintzaillien arteko alkarlanerako alkarta), 1964 (diseño estudi-



Ekitaldixan saritutakuen taldia, Debegesa eta udal ordezkariexekin.

xua), Debanatura (natura eta kultura turismoa), XN Estudio (argazkilaritza eta diseiñua) eta Yan Arte Designing (janarixa eruuteko ontzixak) euren eskintza ezagutzera emoten egon ziran.

Horrekin batera, Debabarrenaren oraiñaz eta etorkizunaz jarduteko mahai-ingurua egiñ eban, Iker Izulainek dinamizauta eta eskualdeko hainbat gonbidaturekin: Jose Manuel Salbide (MCC, Debegesako Mentoring programako kidia), Eneko Astigarra (Codesyntax), Ibone Arretxe (“Berri-bar”), Iker Aldabalde (Hadimek), Ibon Muguruza (Ekingune), Miguel Loitxate (Bidaia-blogaria) eta Raul Cestafe (Zona 10).

Eskolako Agenda 21eko udalbatza

Ikasturtian mugikortasuna eta osasuna landu dabe Eibarko ikastetxietan, Eskolako Agenda 21 programaren barruan. Urtian landutakuak biribiltzeko, baiña, aurreko aste-ko eguenian udalbatzar berezixa hartu eban udaletzeko pleno aretuak eta ikasliak politikueri euren lanetatik etera dittuen ondorixuak azaldu eta hainbat kontu hobetzeko proposamenak helarazi zetsazen. Ple-nuan Eibarko hamar ikastetxietako (Amaña,

Arrateko Andra Mari, Urkizu, San Andres, La Salle Isasi, J.A Mogel, DBH Itzio, Mogel Isasi, La Salle Azitain eta Uni Eibar-Ermua) 100 bat ikaslek hartu eban parte. Ikasliak Eskolako Agenda 21 programaren barruan ikasturtian garatu dittuenen artian, bestiak beste, ikastetzeko eta herriko hainbat puntutan dagan zaratia neurtu dabe sonometruak erabillitta. Ikasliak eskaera eta proposamenak aurkeztu zittuen aurreko aste-



ko saiuan eta, horrekin batera, zaratiaren gaiñian ikasliak eurak hartu dittuen konpromisuen barri be emon eban. Konpromisuetako bat jolasorduan ahots-tonu egokixan jardutekua dago.

Metaleko bihargiñak protestan

Aurreko asteko barixakuan metalerako hitzarmenaren aldeko manifestaziñua egin zan Eibarren, horren harira deittutako greba egunerako ekitaldixekin amaitzeko. Aurretik, eguardixan Gipuzkoa maillako manifestaziñua egiñ eben metalgintzako bihargiñak Donostian. Bestalde, atzorako gehien-go sindikalak deittutako greba orokorrarekin bat egin genduan ...eta kitto!-ko bihargiñak eta, horregaittik, aldizkarixa normalian baiño egun bat aurretik, eguaztenian amaittu eta



Aurreko barixakuan egindako manifestaziñuaren irudixa. LEIRE I.

inprentara bialdu zan. Beraz, atzoko grebaren ingurukuak hurrengo asteko aldizkarixan eukiko dabe isladia.

Dendarien Elkartearen 1.000 euroko taloia



Elena Kortaberria Lizarraldekeruan dau Eibarko Dendarien Elkartearen maiatzeko zozketako sarixa: milla euroko txekia, hillebete-ko epian Dendarien Elkarteko kide diran dendetan gastatzeko. Irabazliak aurreko asteko barixakuan jaso eban sarixa, zozketarako txartel irabazlia eskuratu eban Aldazabal zapatadendan. Argazkixan ikusten dan moduan, erosketa txartela Arantxa Muñoa Aldazabal dendariaren eskutik jaso eban irabazliak. Zorionak!

autuan

BBS EGUNA

Bihotz-Birika Suspertziak bizitzak salbatzeko aukeria emoten dabela herrittareri gogorarazteko asmuarekin, DYAK sensibilizaziñorako hainbat jarduera garatzen dihardu "Zure eskuek bizitza bat salbatu dezakete" goiburuari jarraituta. Eibarren gaur arratsaldian egongo dira, Untzagan, gaixaren gaiñeko informaziñua nahi daben guztieri harrerria egittekko moduan.



AZKEN OSTIRALA

Eibarko Herrirak deittuta, hilleroke moduan Azken Ostirala egingo da, 19.30xetan Untzagan hasiko dan alkarrataratziarekin.



Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS



Beilatokia Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

Bulegoa:
Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ 943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·



943 56 71 59

natural

BIO • DENDA

Bidebarrieta, 6

naturalbiodenda@gmail.com
naturalbiodenda.com

Kontsulta dietetikoak
ekainetik aurrera
astehenero: 08.00-12.30

Osasuna jateko



SUKALDARITZA MAKROBIOTIKOA IKASTAROA Portalean
Ekainaren 22an eta 29an
Interesatuak deitu
943 56 71 59 zenbakira

asteko
4.000
datua

umek hartu dabe parte urtarilletik apirillera Astelenan martxan egon dan parkian; batazbestekua 311-kua da eguneko, gabonetako batazbestekua %25 gaudituta. Ume gehixenak (%80) dendetan oparitutako bonuarekin musutruk erabilli dabe.

Mugi txartela Udalbusian be



Ekaiñaren 3an erabilli ahal izango da Mugi txartela Udalbusian: biajiaren preziaua, lau xentimo merkiago..


Datorren astelehenetik aurrera Mugi txartela herri barruko autobusetan (Udalbusetan) be erabiltzeko aukeria egongo da. Mugi txartela erabillitta, gaiñera, biagia oin baiño lau xentimo merkiagua izango da (0'61 euro) eta txartelik ez dakanak, barriz, zerbitzu berberarengaittik 1'10 euro pagau biharko dittu. Horregaittik, Udalbusa erabiltzen dabeneri txartela eskatzeko gomendatzen detse, prezian dagan aldia haundixa dalako.

Etxeberriaren moda Mexikon

Roberto López Etxeberria diseñadorea Mexikon. Guanajuaton egingo dan Créare 2013 naziñoarteko moda eta diseño lehiaketan parte hartzera gonbidatu dabe antolatzailliak. Eibartarrak lehiaketako sarixak emoteko gala berezixan erakutsiko dittu bere kolekziño barrirako preparau dittuan diseiñuak. Aurreko ediziñuak hamabi herrialdetatik juandako 2.000 diseñadorek hartu eben parte lehiaketan eta aurten be parte hartze haundixa izango dabela aurreikusten dabe antolatzailliak.



Txaltxa Zelaiko parkia estaltzeko biharrak udan



Udalak Sasoia eraikuntza enpresakueri emon detse Txaltxa Zelaiko parkia estaltzeko biharrak egitteko arduria eta, aurreikusittakua betez gero, uztaillian hasi eta sei hillebeteko epian amaittuko dabe obria. Lizitaziño aurrekontua 329.999 eurokua izanda be, Sasoia enpresari 295.349 euro pagauko detsez, BEZ barne. Iaz biharrak beste enpresa bateri agindu eta, azkenian, dana bertan behera geratu eta gero, oinguan lehiaketara presentau diran enpreseri arreta berezixa eskindu ei detse Udalak, aukeratutakua biharrak hasi eta amaitzeko gauza izango dala ziurtatzeko. Gaiñera, aurreko saiakeriaren harira Bilduk gogor kritikau eban udal gobernuaren jarduna, biharrak 2012. urtiaren barruan ez egittiarengaittik 330.000 euroko diru-laguntzia galdu zala aurpegiatuta.

Valentin Richart-endako indultu eske

Orain dela egun batzuk sei urterako kartzela zigorra onartu behar izan zuen Amañako bizilagunak, familiakoen laguntzatik aparte, auzokide eta lagunuen solidaritatea ere jasotzen dihardu eta, dagoeneko, 1.800 sinadura jaso dituzte Valentin Richarten indultua eskatzeko. Horren alde egiteko Amañako tabernetan eta paperdendan sinadurak jasotzeko orriak ipini dituzte eta change-org web orrian ere (600 sinaduratik gora) babesa eskaini daiteke. Familiak bihar du asmoa Entzutegi Probintzian eskatera egiteko eta, batez ere, kexu da komunikabideetan gaiari eman zaion traetarekin: "Valentinen erruduntasuna onartuta ere, ez dago ez indarkeria matxistarik, ez aizkorarik, ez desegituratutako familiarik tartean. Familiartekoen arazoa besterik ez da izan".

Txosnia ipintzeko eskaerak

Aurten San Juan jaixetan txosnia ipiñi nahi dabena datorren astelehenerako, ekaiñaren 3rako presentau biharko dau eskaeria Pegoran, 14.00ak baiño lehen. Eskaeria egitteko orduan adierazi biharrekuak hõnetxek dira: taldia izena, helbidia eta telefonia (ordezkarixarena be), txosnak eukiko daben neurri zihetza, salduko dittuen produktuen zerrendia, eskaeria egitten daben lagunaren edo taldia NAN edo IFK-ren kopixia, elikagaien manipulatzaille karnetaren fotokopixia eta, azkenik, ipiñiko dan txosnaren segurtasun-ziurtagirixa.

Zerbitzu arloko arduradunak azaldu dabenez, txosnak Errebalen, aparkalekuan ipiñiko dira eta bakotxa nun eta zelan kokatu zein bestelakuak zihetzeko billeria datorren astian bertan, martitzen egingo dabe 13.00etan udaletxeko 2. pisuan.



ANA ALBERDI ZUBIA (Emakunde)

“Genero indarkeria ezberdintasunaren ondorio zuzen-zuzena da”

Aurretik Emakundeko Azterlan, Dokumentazio eta Plangintza Arloko arduraduna izan da Ana Alberdi eibartarra. Aurtenlāigo Urkulluren gobernuak Emakundeko idazkari nagusi izendatu du, Izaskun Landaia erakunde bereko zuzendari izendatzearekin batera. Aurten 25 urte bete dira Emakunde sortu zela eta Ana Alberdik horietako gehienak bertan beharrean eman ditu.

- Nolako animoarekin heldu diozu karguari?

Animo guztiarekin, nola ez! Aurretik ere badaramatzat 18-20 urte honetan beharrean, lana nolakoa den badakit, lankideak ezagutzen ditut eta, alde horretatik, badakit lantaldea egin beharrekoak aurrera ateratzeko gauza badela, sasoi edozertarako egokiena izan barik ere.

- Hasiera hasieratik murriztutako aurrekontuarekin ekin beharko diozue beharrari. Murrizketek zertan eragingo dute?

Toki guztietan gertatu den moduan, gurean ere murrizketak egin behar izan dira. Hala ere, gure asmoa orain arteko ekintza guztiei eustea da, nahiz eta hori posible izateko beste formula berri batzuk bilatzea beharrezkoa izango den. Aurten Martxoaren 8aren inguruko zabalkundean, adibidez, teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak baliatu ditugu eta papera bakarrik beharrezkotzat jo ditugunetan erabili dugu. Horrela gastuak merketzea lortu dugu. Ezin izango da gauza bera egin kasu guztietan, argitalpen batzuk oraindik ere paperean ateratzea ga-

rrantzitsua dela uste dugulako, baina beste batzuetan teknologiak eta bestelako baliabideek gastuak murrizteko aukera emango digute.

- Genero Indarkeriaren Biktimen Arretarako Zuzendaritza desagertu arren, ez omen da atzerapausorik emango biktimen arretari dagokionez. Zein asmo duzue hori lortu ahal izateko?

Genero indarkeria, zalantza barik, oso arazo larria da, kale-ratzen diren arazoaren artean larriena. Bestalde, guk oso argi daukagu genero indarkeria ezberdintasunaren ondorio zuzen-zuzena dela. Edozein modutan ere, orain arte eskaintzen jardun dugun zerbitzu eta errekurso guztiak eskaintzen jarraitzen dugu, kargua desagertu arren: 24 ordutan biktimen arreta emateko telefonoa, diru-laguntzak eta beste guztiak orain arteko moduan, berdinean ematen jarraitzen dugu, horretan ez da murrizketarik izan. Bestalde, indarkeriari aurre egiteko garatutakoak egokiak diren ala ez aztertze, zertan hobetu behar dugun pentsatzeko eta beste kontu batzuk lantzeko hainbat bilera

egiten dihardugu eta koordinazio-lana indartzeko asmoa ere badugu. Horiekin guztiekin batera, genero indarkeriari lotuta agertzen doazen gai eta arazo berriei (emakumeen-trata...) erantzun ahal izateko prestatzen dihardugu.

- Berdintasun Plana ere lantzen diharduzue. Nondik nora joango da, zeintzuk izango dira ildo nagusiak?

Legealdi berriari ekiten zaion guztietan plan berria egiten da edo, behintzat, aurretik zegoena begiratu eta gaurkotu. Plana lantzeko orduan parte-hartzerik zabalena izaten aha-



legintzen gara, besteak beste plana EAEko erakunde ezberdinetarako gida modukoa izango delako. Konsultatzeko tartea zabaltzen da, hasieran arduradun politikoekin eta, behin hori amaituta, irailean kontsulta publikorako gertu egotea espero dugu.

- Emakundek 25 urte bete ditu eta zu bertan izan zara beharrean ia urte guzti horietan. Esku artean daukazuen guztiekin Emakunde beharrezkoa dela begibistakoa da, baina horrelakoen preminan izango ez garen egunen bat ailegatu-ko da inoiz?

Horrelako egoera ailegatzeko oso luze joko du, besteak beste gizarte batean balioak ez direlako egun batetik bestera aldatzen. Gizartea edozelakoa dela ere, bertako balioak aldatzeko denbora asko pasatu behar da derrigorrez. Egia da, hala ere, hainbat arlotan aurrerapauso izugarriak eman direla, baina balioei lotutako kontuetan aldaketa askoz ere astiroago ematen da. Denbora luze-ri, gainera, hezkuntza eta beste guztien inplikazioa gehitu behar dizkiogu inoiz benetan berdintasuna lortuko badugu.

Eraikiñen Ikuskapen Teknikua martxan egon biharko zaldia arkitektoak: Udalek-eta motel dabizela Eusko Jaurlaritzatik etorritako agindua betetzen. Baiña, modu batian edo bestian, 50 urtetik gora dituen eraikiñeri pasatu biharreko derrigorrezko azterketia egitteko ordua helduko jakue, aurten hasi eta 2017xa baiño lehen. Ez hori bakarrik: bixar bertan etxien eraginkortasun energetikuaren ziurtagirixa eskatzen daben legia be indarrian jarriko da. Hamendik aurrera bihar-biharrezkua izango da etxiak edo lokalak saldu edo alokatzia nahi daben guztientzat.


Inspekziño teknikua 50 urtetik gorako etxientzat

Ubaldo Ortiz Udaleko Urbanismoko aholkulari juridikuak onartzen dau Eusko Jaurlaritzatik etorritako dekretua aplikatu biharako dala “batzordetik pasau ondoren” eta segidan hasiko dirala aurten dagokixen etxebizitzetako jabieri komunikaziñoak bialtzen. 1901erako eraikitta zeguazen etxe guztiak, hau da, XX. mende aurrekuak, 2013 amaitsu aurretik pasau biharko dabe inspekziño teknikua. Katastruaren arabera, honakuak

dittugu herrixan: “Arraguetako gehixenak (8 pegora), Aldatzen bi, Amañan bat, Azitaiñen hiru, Barakaldon bat, Bidebarrietan bost, B. Sarasketan hiru, Estaziño kalian zortzi, Calbetonen hiru, Ibarkurutzen zazpi, T. Etxebarrian bat, Ubitxan bi, Urki-Kurutzekuan, Zuloagatarrenian eta Isasin bana, Mirafloresen lau eta Otaolan hiru. Muza-tegikuak eta San Andres kalekuak botata dagoz honezkeru. Eta udaletxe hau beaur 1901ekua da”, diñosku Ortizek.



Olatz Etxeberria eta Ibon Irazola arkitektoak. SILBIA HERNANDEZ



Arraguetako zortzi pegorak pasau biharko dabe aurten Ikuskapen Teknikua.

Jarraixan, hurrengo urtiotan, edadian aurrera doiazen beste etxieri tokatuko jakue rebisiñoa pasatzia, honako egutegixari jarraituta: datorren urtian, inspekziñoa pasauko dabe 1901etik 1940ra arte eraikittakuak; 2015ian, 1940tik 1965era altxatutakuak; eta 2016xan barrixaguak diranak. Beti be “Udalak epe horrek aldatzeko ahalmena” izango dabela diño aholkulari juridikuak, “batez be, gure kasuan eraikin gehixenak 1940-1965 tarte horretan egindakuak diralako, gerria amaitsu eta gero”.

Ikuskatze teknikua egitteko betebihar hori 2006ttik dago indarrian, baiña oiñ arte birgaitze lanetan eta dirulaguntzak eskatzerakuan egin dira bakarrik. Oin dagokixen etxebizitzetako jabiek azterketia egitteko prestatuta dagan tekniarixa kontratau biharko dabe. Halako ikuskatzetan lau atal hartzen dira kontuan, batez be: estalkixa, egitturia, fatxadia eta ur-instalaziñoak (bai horniketarakuak eta baitta hustuketarakuak). Emaizak,

bestalde, larrittasunaren arabera sailkatzen dira eta hor bost mailla ezartzen dira ondorixuetan: 24 orduko epian egin biharreko konponketak (auzixa oso larrixa danian), prisa haundikuak (hiru hillabetetan egin biharrekuak), presazkuak (urtebeteko epian konpontzekuak), epe ertaiñekuak (bi urteren buruan egin biharrekuak) eta mantentze lanak (kalterik bako atalak edo elementuak bihar dan moduan jarraitzeko).

Dirulaguntzak lortu leikez

Jaurlaritzaren dekretuak ondo zehazten dau jarraitu biharreko prozedura eta arkitektuen kolegixu teknikokuek badakixe zelako txostenak aurkeztu bihar dittuen. Horren kostua, batzbeste, 1.000 eurokua da; “eta subenziñoa be kopuru horretakua izaten da”. Eta, behiñ egin da, horko emaitzak hamar urterako balixua daka.

Olatz Etxeberria eta Ibon Irazola Eibarko arkitektoak diñue “halako ikuskapenak European normalak” dirala eta hamen



kultura hori oiñ arte ez dogula landu. "Halako neurrixak hartuta, etxiak gehixago balio dau, urte gehixago hartuko dittu eta seguruagua izango da". Ikuska-penak egitteko ez da denbora askorik bihar izaten: bisita bat edo bittan kontrolauta dake, eta begiz egitten dabe gaiñera. Arkitektuak esan deskuenez, "aurretik inkesta bat pasatzen jakue bizilaguneri. Gero, behin txostena eginda, Jaurlaritzara bialtzen da kopixa bat eta Udalera bestia. Eta Jaurlaritzak aukeria daka euren teknikuekin barriro pasau eta txostena on-

do eginda dagan ikusteko".

Akats larrixenak nun egon leikiezan galdetuta, "fatxadetan" esaten deskue bixak. "Teillatuak goiz edo berandu konpondu bihar izaten dittu jendiak, bestela ura sartzen dalako. Baiña fatxadak gehixago deskuidatzen dira". Hori bai: teknikariak esandakua bete egin bihar dabe gero bizilagunak. Berrizte-lan horretan gastautakua be berreskuratu leike kasu batzuetan, "beti be komunidadien kasuetan, ez pribatuetan. Debegesak tramitatzen dittu halakuak". Eskualdeko garapen

agentziak Debabarrenerako Birgaitzen Ordenantza daka eta jendiak oiñ arte bertara jo izan dau birgaitze lanak egitteko eta dirulaguntzak jasotzeko.

Mendixen maldetan eta erre-karen gaiñian eraikittakua izanda, gure herriko eraikiñen are-rio nagusixena hezetasuna dala esaterakuan bat datoz bai Urbanismoko arduraduna eta baita arkitektuak. "Arkitektura berezixa da hamengua, Soraluze-kuaren parekua. Porlana izan da nagusi eta egitura ona dake: Udaletxia bera da hormigoizko lehelengo eraikiña".

Eraginkortasun energetikua

Bixar jarriko da indarrian, bestalde, eraginkortasun energetikuaren ziurtagirixa eskatzen daben legia. Kasu horretan be Europatik hainbat urtera goiaz -atzetik, jakiña- eta Iparraldera pasatuta hango in-mobiliarietako eskaparati-tan ikusi leikezan ikurrak hasiko gara ikusten hamen be, gorri koloretik berdera doian gama horrek. Ziurtagiri hori eskuratze-ko, arkitektu, aparejadore edo in-jenieru industrialengana jo bihar da eta horrek A-tik G-raiño doian letra batekin katalogatuko dau etxia edo lokala. Zer aztertzen dan holako kon-

Más eficiente



Menos eficiente

Eraginkortasun energetikuaren arabera, zazpi maillako sailkapena egitten da. Etxe barrixak A, B edo C dira.

trolarekin? Etxe horrek bihar daben energixia: zenbat konsumitzen daben, zenbat kutsatzen... Kondensaziño-galdarak dira onenak, butanua kutsakorragua da. Isolamenduak bere pisua dauka, bentanak be laguntzen dabe.

Adituak diñuen moduan, "ohittura-aldaketak biharrezkuak dira, batez be dirua eta energixia aurreztera bidian doiazanien". Hamar urterako plana aurkezten dabe halakuetan, "hobetzeko hiru neurrixekin batera". 300 euroko kostua dauka, bataz beste: "Baiña dirua ondo baiño hobeto amortizauko da, 3-4 urtetan, neurri egokixak hartzen badira".

MIHIAN ekainak
KILI-KILI, 16
EUSKARAZ IBILI

ARABA
EUSKARAZ
2013
ARESKETA
IKASTOLA
AMURRIO

autobus
zerBITZUA

IRTEERA:
09.30etan

BUELTA:
19.30etan

9 eurotan

J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ↳ **Tanatorioa eta Errausketa labea** Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitalean hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko traslagoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Tabako Bariko Eguna da gaur, egun ezin aproposagoa Kerik Gabeko Ikasgelak lehiaketako irabazleei saria emateko. Aldatzen 2. DBH ikasten diharduten Leire Quintas, Elena Idigoras eta Irene Piñeiro gazteek irabazi dute herriko 342 ikasleren parte-hartzea izan duen logotipo lehiaketa. Udaletxean eguerdian egindako ekitaldian saria jaso duen marrazkiarekin apaindutako kamiseta bana oparitu diete ikasleei. Horrekin batera, irabazleentzat beste sari batzuk eman dituzte: gela osoarentzat abentura parke batera irteera eta irakaslearentzat Netbook-a.

- Ikasturte honetan tabakoaren inguruko prebentzioa landu duzue, Kerik Gabeko Ikasgelak ekimenari jarraituta. Zer egin duzue?

Besteak beste, hainbat bideo ipini dizkigute, tabakoa erretzeak gure osasunari nola eragiten dion ikusteko. Horrekin batera tabakoaren konposaketa nolakoa den eta erretzearen arriskuei lotutako beste hainbat gauza azaldu dizkigute. Horiek ikusita, helburu batzuk ezarri dizkiogu geure buruei eta, horrela, ez erretzeko asmoari alkoholik ez edateko gehitu diogu.

- Jakin badakigu erretzeak gure osasunari kalte egiten diola, baina jaso dituzuen azalpenen artean zerbaitek bereziki harritu zaituzte?

Arriskuak argiago ikusteko lagungarriak izan dira bideoak. Ikusi ditugun guztien artean, berriz, tabakoak zenbat osagarri dituen edo kadukatutako tabakoa salgai dagoela jakiteak harritu gaitu gehien.

- Nolakoa da saria zuek eramatea lortu duen logotipoa?

Mezua modu zuzenean eta modu sinplean aditzera eman nahi genuen eta, horrekin batera, gazteen hizkuntzara moldatzea. Horregatik, gure adinekoen artean oso ezaguna den Facebook-eko "Ez dut atsegin" botoia hartu eta bertako hatzamarrak zigarroa zapaltzen agertzea mezua argi azaltzeko logotipo egokia izan litekeela pentsatu genuen eta horrekin irabazi dugula lehiaketa.

- Osasun arloko arduradunek diotenez, gero eta neska gazte gehiago hasten da erretzen. Inguruan horrelakorik ikusten duzue?

Bai, hala dela uste dugu. Batzuk zigarroa erretzeagatik beste lagunak baino gehiago direla uste dutelako hasten dira. Eta beste batzuk inguruko lagunak erretzaileak direlako, bakarrik horiek egiten dutena imitatzeagatik hasten dira erretzen.



I. Piñeiro, L. Quintas & E. Idigoras
(ALDATZEKO IKASLEAK)

"Erretzearen arriskuak argiago ikusten ditugu"



• tartak
• enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gazteleraetik euskarara,
eta ingeleseetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

EUROPAN lasai bidaiatzeko LAGUNIK ONENA

Negu itzurako giro honekin bat baino gehiago despistatuta ibiliko den arren, konturatu orduko udan sartuko gara eta udarekin batera oporrak ailegatuko zaizkio askori. Ikasle askok ikasturtea amaitu eta jarraian datozen jai egunak beste herrialde batzuk ezagutzeko aprobetxatuko dituzte. Askok Europa aukeratuko dutenez, primeran etorriko zaie Gazteen Euskal Behatokiak berriki argitara eman duen "Europa Helmuga" gidaliburuaren bigarren edizioa. Argitalpen berriak lehen edizioaren edukiei jarraitzen die, baina, jakina, informazio eguneratuarekin. Europan zehar mugitzeko jakin beharreko guztia, irtenbideak eta informazio praktikoa eskaintzen ditu eta, ordenagailuetan ez ezik, smartphoneetan eta tabletetan ere erabiltzeko moduko formatuan eskuragarri dago.

Lana argitara eman dutenek diotenez, "lehenengo edizioak izandako arrakastak bultzatuta lana eguneratu egin dugu: kontsulta hobetze aldera gidaren diseinua hobetu dugu, eduki berriak txertatu eta gidan jasota dauden milaka estekak gaurko-

tu ditugu". Eguneraketa aurreko edizioaren egileak, nazioarteko mugikortasunean aditua den Antonio Jesús Rodríguez Martínezek gauzatu du.

Informazioa erraz bilatzeko

Abantailak aipatzen hasita, gida oso tu eta argi honek bidaiari denbora alperrik galtzea eragotziko diola nabarmentzea da. Horrekin batera, bidaiari bere neurria egokitutako ibilbidea osatzeko. Izan ere, gidaliburuak interneten sakabanatuta dauden mugikortasun-aukera guztiak sailkatu eta ordenatu egiten ditu, kontsultak modu azkarrago eta erosoagoan egiteko.

Europako Batasuneko herrialderen batera bidaiatzekotan dagoen edozein gazteri sor dakizkioken galderetatik abiatuta, horiei erantzuna eman ahal izateko baliabideak eskaintzen ditu gidak. Gai jakinen inguruko informazioan sakondu nahi duenak, bestalde, gaiari buruzko esteka segurak esku-eskura aurkituko ditu. Gidari esker, besteak beste, honako galderentzat erantzuna aurkituko dute gazteek: "Nola



ikas dezaket hizkuntzaren bat gastatu gabe? Udako lanen bat aurki dezaket atzerriko hizkuntzaren bati buruzko gehiago ikasteko? Zeintzuk dira bidaiatzeko edo bertan bizitzeko beharko ditudan agiriak? Nire gidabaimenak balioko dit? Nola egin behar da beste herrialderen batean balioko duen curriculum?"

Nahi duenak gida ordenagailura jaitsi eta gordetzeko moduan aurkituko du Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean (www.gazteaukera.euskadi.net), pdf formatuan (4 Mb) eta epub formatuan (520 kb), bai euskaraz, bai gaztelaniaz.



La Salle Azitaingokoen hiru irteera

DBH 4ko ikasleak Murillo de Gallegon egon dira, Huescan. Rafting, hidrospeed, kanoi jaitsiera eta paintballez gozatzeko aukera izateaz gain, XI. mendeko Loarreko gaztelua ezagutu zuten. **DBH 2ko ikasleak** Gasteizera joan ziren, Parlamentua eta katedrala ikustera. Arratsaldean itsasontzia hartu eta Zuhatzako uhartera joan ziren hango ekintzetaz gozatzera, euri eta txingor konpainia deserosoan izan bazen ere. Hirugarrenik, **DBH 1eko ikasleak** Abaltzisketa-Larritzera joan ziren. Abaltsizketako Marien Zuhaitz parkean kirol-joko ekintzetan parte hartu zuten (tirolina, kulunketa...).



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net

BIDAIA PERTSONALIZATUAK



**Gure gidariekin
Prezio lehiakorak**

Gure produktu berezienak:
Venezuela, Costa Rica eta India

Azken aldian:

Estatu Batuak, Kubarekin nahastuta

Matienan gaude

Eibartik 10 minutura (autopistan Abadiñoiko irteera)

94 465 75 77

www.bagoaz.com

Eguzkiarekin eta sorgin-dantza artean JOAN DA EUSKAL JAIA

Aurkezpenean antolatzaileek aurreratu zutena bete egin da eta jende mordoak hartu zuen parte aurreko domekan agurtu genuen 48. Euskal Jaiaren barruan antolatutako jardura guztietan. Egitarauko hainbat ekitaldi aurretik egin baziren ere, urteroko martxari jarraituta maiatzeko azken asteburuan egin dira gehienak. Barixaku arratsaldean **Kalian Jolasian** umendako jolasekin hasi eta jaia gauera arte luzatu zen, Markiña-Xemeingo **Akotas Bozine** elektrotarangak kalean eskaini zuen kalejirarekin lehenengo eta, ondoren, karpan **eMePebo5t** Errokmérixarekin. Zapatuan goiz osoa bete zuten **artisansu eta baserritarren azokak** eta haren inguruan antolatutako herri-kirol, bertso saio eta eskolen arteko norgehiagokak. Arratsaldean **bertso-triki parrandak** karpa barruan egin zen **kantu-afarirako giroa** berotu zuen. Eta domekan aurten sorgin-dantzak ardatz izan dituen **Ezpalak jaialdiko** dantzariak eguzkia eta giro paregabea lagun izan zuten Untzagan eskainitako saio ikusgarrian. Kezka dantza taldekoekin batera Antzuola, Norvegia, Katalunia, Zuberoa, Aretxabaleta eta Okzitaniako dantzariak jardun zuten. Bezperako afarian bezala, atzoko **bazkarian** 400 lagun batu ziren aurten Euskal Jaiko otorduak prestatzen arduratu diren elkarte gastronomikoetan sukaldatutakoak jateko. Eta arratsaldeko **erromeriarekin eta larrain-dantzarekin** agurtu dugu Klub Deportiboaren eskutik ospatu dugun Euskal Jaia, hurrengo arte.





ARGAZKIAK:
Leire Iturbe



ZORIONAK DENOI

Joan da bai 48. Euskal Jaia eta ondo joan da gainera. Kalidade handiko dantza ikuskizunarekin hasitako egitarauak giro eder eta alaiatz bete-riko asteburuarekin amaitu zuen bere ibilbidea, hitzaldia eta tailerra tar-teko, jolasak, musika, nekazaritza, artisautza, herri kirolak, bertsolaritza, trikitixa, kantuak, erromeria, dantza jaialdia, herri-dantzak... giro ederra eta euskalduna, gure kulturaren blai eginda, ondo janda, edanda eta dan-tzatu, azkenean eguraldiak ere lagunduta, ezin hobeto.

Aurtengo edizioan ezaugarri bat azpimarratu nahi izan dugu hasieratik: ate desberdinak jo ditugunean aurkitu dugun jarrera. Eibarko Txirixo, Gaz-te gogor, Ipurua, Jaiki, Kamarroa, Legarre gain, Umbe, Usobide, Zatixa, Os-pelak, Bide Alde, Amaña eta Batuak elkarte gastronomikoei zorionak eta es-kerrik asko egindako lan zoragarriatik; Direna Banaketak eta Oberena ha-rotegiari mila mila esker euren aportazioatik eta batez ere erakutsitako jarreratik. Untzagan jarritako sukaldean lanean egon zinetenei txapo, zer gehiago esan. Harrikoa egin zenutenei eskeintzeko nahiko eskerrak ez dau-de, ederra marroia sartu genizuena eta erantzuna ezin hobea: mila esker la-gunak. Iturbururi ere eskerrak tresneria guztia lagatzearren. Zerbitzatzen, muntatzen, desmuntatzen, barran eta abar ibili zineten hamamaka lagu-nei zer esan, eskerrik asko egindako lanagatik eta bereziki igandean baz-karia zerbitzatu zuten Kezkako gaztetxoei: primeran. Zapatuan azoka mun-tatu eta desmuntatu zuen kuadrilari ere mila esker aurten ere lan neke-tsuari aurre egiteagatik. Propaganda eta janari banaketa egin zenutenei es-kerrik asko; komunikazio lanetan ibili zaretenei ere mila esker eta "la vie-ja guardia"-ri, en fin, hitzik gabe, eta orohar momentu zailetan deitu eta ha-mar minututan erantzun zenutenei esker mila bihotzez, denon artean egin duzue posible egitasmo berria, bilatzen genituen xedeak gauzagarri bila-katzu, inplikazioa eta partehartzea era nabarmenean handituz eta datozen urteei begira hazia jarritz.

Ez dugu amaitu nahi Udalarri eta Euskera sailari bere ekarpena es-kertu gabe eta ezta Arrate Kultur elkarteari eta Debemenei ere. Klubak urtero izaten duen jarrera eta baita Kezkak egiten duen lana ere azpi-marratu nahi dugu.

Zorionak denoi, antolakuntzan zein ekimenetan parte hartu duzuen guz-tioi, denon artean aurtengo EUSKAL JAIA maiuskulaz idatzi baituzue.

Klub Deportiboko Kultura Batzordea





"Ametsak" dantza ikuskizuna, Birakarekin

Datorren astian, martitzen, eguazten eta barixakuan Biraka Dantza Taldekuak "Ametsak" ikuskizuna eskainiko dute Coliseoan, hiru egunetan 20.00etan hasita. Dantza ikuskizunerako sarrerak 3 euro balio du eta ohiko bideei jarraituta aldeztu aurretik erosteko aukera dauka hala nahi duenak.



Zapatuko 'Euskaraz Bizi' bertan behera

Bihar (zapatua) egitekoa zen Juan Antonio Mogel ikastolaren "Euskaraz Bizi" eguna bertan behera lagatzea erabaki du ikastolako zuzendaritzak. Aurreikusita dagoen eguraldia oso txarra izanda, leku eta antolaketa arazoak izango dituztela pentsatzen dute eta ezin-

go dutela eguna behar den moduan ospatu. LH eta DBH-ko ikasle eta horien gurasoendako eguna, beraz, ez da ospatuko. Haur Hezkuntzako "Euskaraz bizi" eguna hurrengo zapatuan, ekainaren 8an, egitekoa da eta momentuz ez da aldaketarik izango.

Berbetanekuak Elgoibarko Mintza Egunera

Euskal Herriko mintzalagunen jaia hartuko du bihar Elgoibarrerekin eta, urteroko moduan, Mintza Egunarekin bat egingo dute ...eta kitto! Euskara Elkartearen Berbetan programan parte hartzen dutenetako askok. Zapatu honetako zortzigarren edizioa izango da eta jaiaren aitzakiarekin Euskal Herri osoko 300 bat mintzalagun elkartuko direla aurreikusten dute antolatzaileek. Parte hartzera animatzen direnek, besteak beste, Elgoibarko txokoak eta historia hobeto ezagutzeko aukera paregabea izango dute eta mingainak dantzan jartzeko aukerarik ez zaie faltako. Egitaraua 11.00etan hasiko da, Elgoibarko Maalako parkean joandako guztiei ongietorria egin eta hamaiketakoarekin. 12.00etan Elgoibarko kaleak eta historia ezagutzeko aukera izango da, Pello Arrieta



historialariak gidatuko duen ibilaldian. 13.30etan Mintza Kalejira hasiko da, dultzaineroekin, eta handik ordubetera, 14.30etan berriz ere Maalako parkean batuko dira, bazkaltzeko. Bazkalostean, 16.30ak aldera omenduei sariak banatu eta bertsolarien saioa hasiko da eta, jaia agurtu aurretik, 17.30etatik aurrera, erromeria eskainiko du eMePebo5t taldeak.



Ikasturteari agur esateko erakusketa

Dibujo eta Zeramika UdAl Eskolakoek ikasturtea amaitu dute eta, urteroko martxari jarraituta, erakusketa prestatu dute ikasturtean zehar landu dituztenak jendaurrean erakusteko. Atzo inauguratutako erakusketa ekainaren 19ra arte ikusteko aukera izango du nahi duenak, ohiko ordutegiari jarraituta: martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara.

Kaleetan Kantuz jaia zapatuan

Oporrak hartzeko ordua ailegatu zaie Kaleetan Kantuzekoei, baina aurretik, eta beste urte batzuetan egindakoaren bidetik, bihar eguna jai giroan emango dute. Eibartarrekin batera, beste herri batzuetatik jaiarekin bat egitera animatu diren beste askok jardungo dute kantuan zein antolatutako beste jardueretan (izena emateko



epea itxi aurretik 135 lagun zegoen izen-emandan). Biharko prestatu duten egitarauari 11.00etan ekingo diote, Untzagako jubilatuetan etxean, alkateak parte hartuko duten taldeei ongietorria emanda. Jarraian kantu-perak emango dizkiete eta lagun bakoitzari

ogitartekoa eta edaria banatuta, hamarretakoa amaitu eta jarraian, 12.00ak aldera abesbatzen kalejira hasiko da, herriko kaleetan zehar. 14.30etan, berriz, udaletxeko arkupeetan bazkaltzen hasteko asmoa dute. Jaiari 18.00ak aldera esango diote agur.

Koadrilentzako diru-laguntzak

Udalak San Juan jaietan antolatzen diren ekitaldietan parte hartuko duten gazteei diru-laguntzak emango dizkie eta, aste honetan bertan izandako bileran erabakitakoari jarraituta, dirua jaso nahi duten koadrilek honako pausoak eman beharko dituzte eskaerak modu egokian aurkeztu eta dirua jaso ahal izateko: lehenik eta behin, kamisetak, instrumentuak edo bestelakoak erosi nahi duten dendan aurrekontua eskatu beharko dute (datu hauek agertu beharko dira: enpresaren izena, telefonoa, helbidea, posta elektronikoa eta IFK, zer erosiko den eta zenbateko kostua izango duen (BEZa barne). Jarraian, cultura@eibar.net helbidera bidali beharko dute, taldea-

ren izen eta kamisetetako mezuekin (euskeraz) batera, ekainaren 14rako (12.00ak aurretik).

Udalak proposamen guztiak aztertu eta gero, aurrekontuan jasota agertzen den kopurua banatuko du, koadrila bakoitzari dagokion zenbatekoa emanda. Horretarako, koadrila bakoitzak lehen aipatutako helbide elektronikora fakturak bidali beharko dizkio Udalari. Faktura Eibarko Udalaren izenean egingo da (IFK: P2003100A). Bestalde, gastua ordaindutakoa baino handiagoa bada, kopuru bien arteko aldea koadrilak ordaindu beharko duela aurreratu dute. Argibide gehiago behar duenak 943-708435 telefonora deitu dezake.

laburrak

TAILERRA ETA KARTELA

Bihar 18.00etan umeentzat tailerra antolatu du El Corte Inglés-ak: "Arrain dibertigarriak" izenburukoan parte hartu nahi duten umeek liburu sailean eman dezakete izena. Horrez gain, "2013ko Sanjuanak. Eibarko El Corte Inglés" gaiari jarraituta kartel lehiaketa egingo dute, toki berean, ekainaren 15ean (17.30etan).

ANTZEZLANA

Berriaren 10. urteurrenaren harira, gaur 20.30etan Elgoibarko Herriko Antzokian Metrokoadroka sormen laborategiak urteurrenerako bereziki prestatu duen "Zertarako hegoak" antzezlana aurkeztuko du.



Agirresarobek Woody Allenekin jardungo du

Berriz ere Woody Allen zinema zuzendariarekin batera beharrean jardungo du Javier Agirresarobe argazkilari eibartarrak, "Blue Jasmine" Allenek zuzendutako film berrian. Aurretik ere elkarrekin jardundakoak dira, 2007an "Vicky Cristina Barcelona" pelikulan Agirresarobe arduratu baitzen argazki eta argiztapen kontuekin. Esperientziarekin pozik, Allenek berriz ere bera aukeratu nahi izan du bere lanik berrienean argazkilaritzaz arduratzeko.



ASUN BASAURI ORMAETXEA

1. URTEURRENA (2012-VI-1)

"Gure Bihotzeko Amatxo maitea, maite zaitugu hasieratik, orain eta betirako. Agurrik ez, gero arte baizik. Lagundu eiguzu, beti bezela. Dana maitasuna zara"

ZURE SENIDEAK



Gertu izan arren, ezin mailaz igo waterpoloan

Orbean getxotarrak egurtu eta gero, Bizkaiko lurraldean jokatutako hurrengo bi partiduetako aukerak ihes egin diete Urbat-Urko tronik-ekoei. Aurreko asteburuan izandako ikamikek paso eman zioten oraingoan jokatutako neurketa normalago bati; baina emaitzak bizkarra eman zien berriro eibartarrei. Eibartarrak nagusi izan ziren ia partidu guztian baina azken laurdena amaitzeko 50 segundoren faltan berdintzea lortu zuten bizkai-

tarrek (6-6). Jarraian jokatutako luzapenean, zazpigarren gol batek getxotarrak 1. mailan jarraitzea erabaki zuen.



Herriko lau ordezkari Zegama-Aizkorri

Izena eman zuten 521 korrikarietatik, 437 helmugaratu ziren domekan jokatutako Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren 12. edizioan. Aurreko

urteetakoari jarraituz, Kilian Jornet izan zen irabazlea (3 ordu, 54 minutu eta 38 segundo), Luis Alberto Hernandori segundo batzuk bakarrik atarata: inoiz baino gertuago egon zen bigarrena lehenengoarengandik. Emakumezkoetan Emelie Forsberg izan zen onena eta Oihana Kortazar izako irabazlea ez zen ondo aurkitu eta lasterketa bertan behera laga zuen. Eibarko korrikalariei dagokienez, Jose Mari Bernedo izan zen onena, 51. postuan (4h40'41") eta bere atzetik sailkatu ziren Jose Luis Gisasola (287.a), Ignacio Garai (346.a) eta Ismael Elizalde (432.a).



Foball-zaletuen Kopako finala bihar goizean

Garajes Garcia.com eta Esmorga Akara izango dira bihar Unben, 10.30etatik aurrera, foball-zaletuen Kopako finala jokatuko dutenak. Garajes faborittoa zen EzDok-en aurrean (2-0 irabazi zion, Ganixen golekina), baina Esmorgak ezustea eman zuen eta Koskorri 3-0 nagusitu zitzaion (Mikelen bi golekina eta Martinen batekin). Behin finala amaituta, denboraldiko sari guztiak banatuko dira.



Roll-eski proba ere egingo da Arrateraino.

Finalista Eguna ospatuko da domekan Arraten

Klub Deportiboak urteroko bere eguna ospatuko du, betiko moduan, ekainaren lehen asteburuan. Hori dela-eta, hainbat ekintza antolatuko dituzte, Arraten egun pasa egiteko aproposak. Mendi batzordekoek ibilaldi bi antolatu dituzte: 08.15etan, Deporetik irtenda eta, Santa Kurutz, Kalamuako Parlamentua eta Kalamuatik pasatuta, Arratera helduko dira; eta haur eta gurasoentzat 09.00etan abiatuko dena (Deporren eman beharko da izena), Ego-gainen autobusa hartu eta Ixuara

joateko, handik Kalamua, Akondia eta Aizketatik Arratera helduko dira. 09.30etan, bestalde, eski batzordeak antolatutako roll eski igoera hasiko da Itzioko parkean.

Eguerdian, pilota eta dantza batzordeek antolatutako Caeroren omenezko pilota partiduak eta Kezka Dantza taldearen emanaldia izango dira, jarraian helduen mendiko dominen banaketarekin jarraitzeko. 14.30etan bazkaria egingo da Tiro-Pitxoian eta txartelak salgai daude Klub Deportiboan.



Ruibal lehen mailara igo da saskibaloian

Eibartarrek gorriak ikusi zituzten (bi minuturen faltan 12 punturengatik zihoazen galtzen), azkenean maila igotzea ospatzeko moduan egon ziren. Ruibalek Elgoibartik zekarren 15 puntuko aldeaz baliatu zen eta, sufrikario hutsa izan zen partiduan, 65-73 galdu zuten Viento Sur-ekin. Faltek ere asko zigortu zuten Eibarko taldea (45 jaurtiketa libre izan zituzten elgoibartarrek) eta, azkenerako, justu bost jokalarirekin egin behar izan zioten aurre azken minutuei. Azurmendi, 23 punturekin, eta Otxandiano, 20rekin, izan ziren saskiratzaile onenak.

Eibarrek Alcoyko 2-2koari errenta ateratzeko asmoz

Aurreko kanporaketetako ez gertatzeko, emaitza ona lortu zuen Eibar Kirol Elkar- teak Alcoyn, bina berdinduta. Capa eta Abaroaren golekin 0-2 irabazten joan eta gero, halamoduzko emaitza badirudien arren, Garitanoren mutilek abantaila izan- go dute, 0-0koari eustearekin nahikoa bai- tute. Domekan 18.00etan jokatu den itzulerako partidurako Ruben Arroyoren baja izango du taldeak. Baja hori, gainera, gehiago luzatuko delakoan daude, barne-



lotailua eta meniskoa minduta baititu. Bestalde, bazkideek sarrera doan izango duten moduan, karneta aurkeztuz beste bost sarrera lortzeko aukera izango dute, 10 eurotan bakoitza. Sarrerak eskuratzeko

Ipuruako bulegoetara joan behar da, honako ordutegian: gaur 16.00etatik 20.00ak arte eta bihar goizez bakarrik, 10.00etatik 13.00a arte. Neurri horiekin, zaletuen animoak jasoko dituela espero dute klubean.



Urkoko kobazulora egindako irteera.

"Euskal Herriko mendiak" erakutsiko ditu Periko Iriondok

Klub Deportiboko mendi batzordeko kideak berak egindako beste lan bat aurkeztuko du datorren eguaztenean, hilaren 5ean, Klub Deportibo- an bertan. 19.30etan hasiko den emanaldian, Euskal Herriko mendiak era- kusteaz gain, klubarekin egindako hainbat irteeretako irudiak erakutsiko ditu, tartean umeekin egindako txangoak Urkoko kobazulora. Emanaldiak 20 bat minutu iraungo du.

Melfuneko infantilak Euskadiko txapeldunak eskubaloian

Eibar Eskubaloia mutilen maila guztietan Euskadiko finalerara iritsi den klub bakarra da. Horrez gain, infantiletan Melfun taldeak Euskadiko txapela jantzi du, Bizkaiko (Loiola In-



dautu) eta Arabako (Gasteizko Corazonistas) txapeldunei irabazi eta gero. Bestalde, senio- rretan Gipuzkoako Kopa bere- ganatu zuen Somos Eskuba- loiak Zumarragan jokaturako neurketan Elgoibarri 23-22 irabazita.

Eskubaloi eskolari dagokio- nez, 68 neska-mutilek jardun izan dute jokatzeko; maila guztiei erreparatu, 226 jokalarik jardun dute azken denboraldian.

Concepto Egile 2. mailara

Broncesval Montcadari 6-4 irabazita, Elgoibarko talde- ak maila igotzeko aukera aprobeztatu zuen. Lehenengo partiduan lortutako aldeari ondo eutsiz, Dababarrena- koak nagusi izan ziren partidu guztian, azken unean er- laxatzeraino. Buitrek beste bi gol sartu zituen. Liga guz- tian berdinketa bakarra izan dute etxean, itzuli osoa eman dute galdu barik eta, azkenik, igo egin dute.



Orain bulego lanek erabakiko dute taldeak mailaz igotzea onartzen duen edo, diru faltagatik, aukerari ezetz esatera behartuta dagoen.

Pello Osoro bikain Hondarribiko Sprint Triatloian

Ainhua Muruak eta Ryan Bailek iraba- zitako proban, Deltecoko ordezkaria hamar onenen artean sartu zen berri- ro ere eta, horrez gain, 5.a izan zen 23 urtetik azpikoenen artean. Andoni Lo- pezek postu bera eskuratu zuen ju- niorretan Juanjo Romero hirugarrena izan zen beterrano 2 mailan. Kostalde- ko herrian Ander Guenaga, Ibon Ro- mero eta Santi Guinea ere izan ziren.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, AIMAR, etxeko printzipia, gaur lau urte betetzen dozulako. Endika, Aitana eta famelixaren partez.



Zorionak, AIZPEA, gure pitxurri, haraiñegun hamar urte egin zenduaz-en eta. Muxu potolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak, AMAIA, martitzenian bost urte bete zenduaz-en eta. Laztan haundi bat aitta, ama eta, batez be, Mirenen partez.



Zorionak, LEIRE, astelehenian zazpi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, XABAT, juan dan astelehenian lau urte bete zittuan-eta etxeko dantzariak. Patxo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, KEPA, haraiñegun bost urte egin zenduaz-elako. Patxo haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, URKO, gaur urte biko beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, AITOR, etxekuen eta, batez be, Enekoren partez. Muxu eta besarkada haundi bat.



Zorionak, UGAITZ, haraiñegun hamar urte bete zenduaz-elako. Zure aittaren eta famelixaren partez.



Zorionak, HAIZEA, Gracia Lekunberri, bixar hiru urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IRATI, Arizmendiarieta Martin, domekan 9 urte egingo dozuz-eta. Gure mendizaliari, gurasuen partez.



Zorionak, MIKEL eta UXUE, gaur sei urte egitten dozuz-eta!!! Muxu potolo bat etxekuen partez.

hildakoak

- Milagros Pinacho Hernandez. 86 urte. 2013-V-23.
- Josefa Arrillaga Arrilaga. 85 urte. 2013-V-24.
- Jeronimo Ruiz de Galarreta Azpilikueta. 80 urte. 2013-V-24.
- Antonio Augusto Morais. 67 urte. 2013-V-26.

jaiotakoak

- Amaia Ezenarro Garitagoitia. 2013-V-20.
- Jol Ibagutxi Ibañez. 2013-V-21.
- Nahia Urgoitia Inda. 2013-V-23.
- Aitor Meabebasterretxea Vega. 2013-V-24.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

31n: 22.30

1ean: 19.45, 22.30

2an: 20.00

3an: 20.30

"Ayer no termina nunca"

Zuzendaria: Isabel Coixet



(2 ARETOAN)

31n: 22.30

1ean: 19.45, 22.30

2an: 20.00

3an: 20.30

"Efectos secundarios"

Zuzendaria: Steven Soderbergh



(ANTZOKIAN)

31n: 22.30

1ean: 19.30, 22.30

2an: 20.00

3an: 20.30

"El gran Gatsby"

Zuzendaria: Baz Luhrmann



BARIXAKUA 31

DYA-REN JARDUNALDIA

Arratsaldean. Bihotz-Birika Suspertzearen Eguna, DYAre eskutik. Untzagan.

BILERA

19.00. Sanjuanetarako ekitaldiak prestatzeko batzarra, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Eibarko Bizikleta Plazan (euria eginez gero Kultur).

OMENALDIA

19.30. Udalak Asier Cuevas atletari omenaldia egiteko ekitaldia. Udaletxean.

KONTZERTUA

23.00. Ez Dok Jam Session. Ez Dok tabernan.

ZAPATUA 1

EIBARKO ITZULIA

07.00. 18. Eibarko Itzulia. Deporretik irtenda.

KALEETAN KANTUZ JAIA

10.00. Parte hartuko duten taldeei ongiatorria, alkatearen eskutik. Kantu-paperak banatzea eta hamarretakoa. Untzagako jubilatutuetan.
12.00. Abesbatzen kalejira, herriko kaleetan.
14.30. Bazkaria. Udaletxeko arkupeetan.
18.00. Agurra. Untzagan.

MINTZA EGUNA

11.00. Ongietorria eta hamaiketakoa, Maalako Plazan.
12.00. Ibilaldi gidatua.
13.30. Mintza-kalejira.
14.30. Bazkaria, Maalako Plazan.
16.30. Sari-banaketa.
17.00. Euskal erromeria eMePebo5t taldearekin. Elgoibarren.

UMEENTZAKO TAILERRA

18.00. "Arrain dibertigarriak". El Corte Inglesean.

DOMEKA 2

FINALISTA EGUNA

08.15. Mendi-ibilaldia, Santa Kurutzera, Deportibotik hasita.
09.00. Haur eta gurasoentzako ibilaldia: Ixua-Kalamua-Akondia-Aizketa-Arrate (Ego-Gainetik Ixuara autobusa).
09.30. Roll-ski igoera, Itzioko parketik hasita.
12.00. Caeloren omenezko pelota-partiduak. Arrateko frontoian.
12.30. Kezka dantza taldearen emanaldia eta haur eta nagusiei mendiko dominak banatzea.
14.30. Bazkaria, Arrateko Tiro Pitxoian.

TXIRRINDULARITZA

10.00. Sanjuanetako LXXVIII. Txirrindularitza Sari Nagusia, gazteentzat. Krono-igoera: Eibar-Unbe.

ASTELEHENA 3

IKASTEN

15.00. Sendabelarren Foroa: pomada tailerra, Nekane Martiarenakin. Portalean.

MARTITZENA 4

IKASTEN

18.00. Etxe-barruko ekonomia: "El taller ahorro, mantenimiento y seguridad eléctrica en el hogar", Angel Aldalurren eskutik. Portalean.

DANTZA

20.00. Biraka dantza taldearen emanaldia. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

EGUAZTENA 5

IKASTEN

09.30. Mendi-ibilaldia: Oiartzun-Arditurri. Donostiara joateko autobusa Ego-Gainetik irtengo da.

DANBORRADA

19.00. Sanjuanetako danborradarako entsegua, umeendako.
20.00. Helduendako entsegua. Bittor Sarasketan udalak duen lokalean (Beistegi eraikinean).

BILERA

19.30. "Jun Hemendik" herri mugimenduaren bilera irekia. Eibarko Bizikleta Plazan (euria eginez gero Kultur).

DANTZA

20.00. Biraka dantza taldearen emanaldia. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

EGUENA 6

KALERATZEAK STOP

19.00. Stop Desahucios Debabarrena plataformakoen bilera irekia.

AMAÑAKO DANBORRADA

19.00. Amañako umeen danborradarako entsegua.
20.00. Helduendako entsegua. Amaña herri ikastetxean.

ON EGIN

20.00. On Egin enpresa ideia eta proiektuen lehiaketako irabazleak ezagutzera emateko ekitaldia eta afaria. Klub Deportiboan.

HOROSKOPOA

ARIES

Komuna behin baino gehiagotan bisitatuko duzu. Ez zabilta tripetatik batere ondo eta ahal geratuko zara. Jan arroza!

TAURUS

Deitu egiozuzu. Zure zain dago, baina zuk eman behar duzu pausoa; izan ere, bera luzarozan egon da zure zain.

GEMINI

Ez da izango ahalegin handiak egin ez dituzulako. Gauzak ondo edo txarto irten daitezke, baina zuk nahikoa egin duzu.

CANCER

Baten edo bestearen alde egin, beti geldituko zaizu hutsune sentsazioa. Hori bai, ez zara erabakiarekin damutuko.

LEO

Hartu denbora pixka bat gauzak ondo pentsatzeko. Buruko ideiak ordenean ipini behar dituzu eta orduan erabaki nora jo.

VIRGO

Jaki berri bat probatu eta liluratu egingo zaitu. Zapora berria, zuretzat deskriba ezina. Zenbat denbora berriz gozatzeko.

LIBRA

Ez laga jendeari inozoa zarela pentsatzen. Barruan daukazun hori erakutsi behar diezu; bestela, berdin jarraituko duzu.

SCORPIUS

Poztu zaituzte, datozen egunotan berri onak jasoko dituzu-eta. Ez dira espero zenituen albiste zoragarriak, baina ez dira txarrak.

SAGITTARIUS

Zeinen politikak diren haurrak, eh? Nabaria da eurekin ondo pasatzen duzula, baita eurek zurekin ere. Duzun ahots leuna...

CAPRICORNIUS

Zure bizitza lanpetuan tartetoxa aurkitu eta joan zaituzte eraketak egitera: erropa horiek orain dela hamar urtekoak dira.

AQUARIUS

Arazoen gainean berba egiten denean, askoz ere errazagoa da irtenbidea bilatzea. Berarekin geratu eta egin berba.

PISCIS

Lan eta lan ibiliko zara, baina egun gutxi batzuetan bakarrik. Laster izango duzu eguraldi beroaz gozatzeko aukera.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena

erakusketak

✓ Maiatzaren 31ra arte

32. ARGIZAIOLA LEHIAKETA. Deporren. DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEaren argazki erakusketa. El Ambigú eta Portalea tabernetan eta Untzagako jubilatutuetan.

✓ Ekainaren 19ra arte

DIBUJO ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLAkoen ikasturte amaierako erakusketa. Portalean.

lehiaketak

✓ Ekainera arte

LI (BURU-HAUSGARRIAK) IRAKURKETA ETA IKERKETA LEHIAKETA. Juan San Martin liburutegian.

✓ Ekainaren 15ean

2013-KO SANJUANAK. EIBARKO EL CORTE INGLES. 17.30etan, El Corte Inglés-eko terrazan.

✓ Ekainaren 22ra arte

III. MASKOTA LEHIAKETA. Eguna eta tokia: Uztailaren 6an, El Corte Inglés-eko terrazan. Izen-ematea eta informazioa: El Corte Inglés-eko animalien sailean.

farmaziak

✓ barixakua 31

EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

✓ zapatua 1

EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)

✓ domeka 2

EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

✓ astelehena 3

EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

✓ martitzena 4

EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)

✓ eguaztena 5

EGUNEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)
GAUEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)

✓ eguena 6

EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

✓ barixakua 7

EGUNEZ Las Heras Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Las Heras Larramendi (Calbetón, 19)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

8			3		7	2
	6			8		
			1		3	6
6	8		2	5		
			1			
	7	4			9	8
4	2		1			
		9			1	
3	7		8			4

SUDOKUA

3	5	7	8	9	1	6	2	4
9	1	2	3	4	6	8	7	5
8	6	4	5	2	7	1	3	9
5	4	8	6	1	2	7	9	3
1	9	6	7	5	3	4	8	2
2	7	3	9	8	4	5	1	6
7	2	9	4	6	8	3	5	1
4	3	5	1	7	9	2	6	8
6	8	1	2	3	5	9	4	7

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Errekatxun. 2 logela, egongela-jangela eta komuna. Guztiz berriztuta eta jantzita. Kalefakzioa. Saltzeko premia handia. Prezioa adosteko. Tel. 659-757572.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 666-784526.
– Elgetan pisua alokagai. 2 logela, 2 komun, sukalde-egongela zabala eta balkoia. 70 m². Oso egoera onean. Tel. 618-272943.
– Logela alokagai Eibarren. Tel. 686-735525.
– Neska arduratsua pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 618-354218.
– Buhardila txukuna alokagai Txontan. 5. pisua. Igogailurik gabe. Tel. 626-144098.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Mobilhome salgai Mutrikuko Santa Elena kanping-ean. 2 logela, egongela eta komuna (dutexarekin). Abantzia sukaldearekin. Etxetresna elektriko berriak. Itsasora begira. Tel. 650-818642 eta 943-203091.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje bikoitz itxia salgai Bittor Sarrasketan. 32 m². Tel. 617-336462.

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Asua-errekaren. 90 euro hilean. Tel. 686-224524.
– Aisialdirako lokala alokagai, barrarekin prestatuta. Koadrilendako aproposa (adin nagusikoak). 80 m². Udal ordenantza berriari egokitua. Tel. 679-425467.
– Ilepaindegi berriztua alokagai. Merke. Atenditu ezin delako. Tel. 699-682310.
– Industri-pabilioia alokagai Elgoibaroko Olaso poligonoan jubilatzearengatik. Mekanizatuatarako makinaria aukeran instalazio osatuan. Tel. 649-258913.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta orduka. Tel. 627-652870.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 606-050793.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Baita jaiegunetan eta udan ere. 15 urteko esperientzia. Tel. 680-463892.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-395829.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 689-761487 eta 685-836396.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
– Erizaintzan titulatu eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 680-952793. Bea.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Etxean zein ospitalean. Tel. 688-802701.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 647-031356.
– Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 625-895460.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 608-866535.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 653-075865.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-887814.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan, umeak edo nagusiak zaintzeko, hoteleko kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.
– Neska euskalduna eskaintzen da udako oporretan umeak zaintzeko. Edozein ordutegi. Tel. 618-814064.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 648-180233.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 631-463492.
– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Orduka eta baita asteburuetan ere. Tel. 657-156254.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 618-354218.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 627-652870.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 616-457254.
– Emakume arduratsua eskaintzen da gaixoak zaintzeko etxean edo ospitalean. 10 urteko esperientzia. Tel. 631-385949.
– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-821678.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko, hoteleko kamarera moduan eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta base-riari jarduteko. Esperientzia. Tel. 686-077316.
– Neska eskaintzen da 10.30etatik 16.30etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-458271.
– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-526228.
– Neska eskaintzen da 10.30etatik 16.30etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-886701.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita gauzez ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 625-895460. Carmen M^a.
– Emakume arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere). Tel. 627-768684.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxak garbitzeko. Orduka. Tel. 608-866535.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 627-031640.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 671-971930.
– Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 691-726738.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka edo interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-361252.

4.2. Langile bila

– Emakume eibartarra behar da nagusia zaintzeko. Tel. 665-733954.
– Ilepaindegiarako langilea behar da. Eskolako titulu ofiziala eta esperientzia baloratu dira. Tel. 615-754621.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Seme nagusiarentzat bugaboo sillan jartzen den patinetea erosiko nuke. Tel. 647-034201.
– Fitness bizikleta estatikoa salgai. Prezio eta egoera onean. Tel. 658-756462.
– 11 tomoko "La Gran Enciclopedia Larousse" (25 euro) eta 8 tomoko "Reader's Digest" hiztegi entziklopediko ilustratua (12 euro) salgai. Tel. 943-120030.
– Academy gitarra elektriko salgai. Estreinatuta gabe. Anplifikadorearekin, 200 euro; gabe, 180. Tel. 654-926243.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Quicksilver txanozko sudadera urdina galdu zen Untzaga plazan aurreko astean. Tel. 687-472084. Ane.
– Txanozko sudadera beltza galdu zen aurreko barixakuan Telepizta eta San Agustineko bidean. Tel. 687-472084. Ane.
– Emakume bellarritakoa (perla zuria eta kristalxoekin) galdu zen orain dela aste bi Elorza farmazia inguruan. Tel. 645-708093. M^a Carmen.

6.4. Bestelakoak

– Umetxoarendako sehaska eta kotoxe-kapota hartuko nitzuke. Tel. 696-509360.

Lanerako



Gertu!

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

Oñati gestio
heziketa

Izen-ematea

maiatzak 27tik ekainak 6ra

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
2013-2014

Eskaintza akademikoa

MGEP	Oñati Gestio Heziketa
<ul style="list-style-type: none">•Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak•Automatizazioa eta Robotika Industriala•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua•Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa•Mekatronika Industriala	<ul style="list-style-type: none">• Administrazioa eta Finantzak• Zuzendaritza Idazkaritza•Salmenta Kudeaketa•Nazioarteko Merkataritza
<p>www.mondragon.edu/gmhz gmhz.mgep@mondragon.edu 943 71 21 91</p>	<p>www.mondragon.edu/ogh info.enpresagintza@mondragon.edu 943 71 80 09</p>



Nik
euskara



BEKAK eta
diru-laguntzak ditugu

Etorri eta galdetu!

16 urtetik gorakoentzat

ESKAINNTZA

- Euskalduntze eta alfabetatzea
- 1., 2. eta 3. maila (EGA) prestatzeko ikastaroak
- **TITULU OFIZIALAK**



- Goizez, 4 orduko ikastaroak
- Ekainaren 26tik uztailaren 23ra
- Irailean jarraitzeko aukera

(azterketa aurreko egunetan, egunero 2 ordu, bi astez)



MATRIKULATZEKO EPEA
Udal Euskaltegian www.udaleuskaltegiak.net
Ekainaren 3tik 20ra bitartean

Bista Eder 10 -PORTA-



Eibarko Udal Euskaltegia
Patronatu Euskaltegi de Eibar



euskaltegiaeibar@telefonica.net

Telefonoa: 943 70 09 12 Faxa: 943 82 00 89

www.aki.es



ADI,
IREKI DUGU!

DURANGO



€19,95

Zulagailu kolpatzailea
710 W SKIL



AKÍ DURANGO - BI-632 - Montorreta kalea



Brikolajea • Lorezaintza • Dekorazioa